

II. IRRATSAIO (MAGAZIN) BATEN ERAKETA

I. IDEIA: Lehenik, honako elementu hauek zehaztu behar duzu, irratsaioaren gidoia eratzen hasi baino lehen (horiek baldintzatuko baitituzte edukiak)

1. Irratsaioari buruzko datu orokorrak:

- a. Izenburua
- b. Emisio-ordutegia: goizez, arratsaldez, gauz??? Zein ordutegi-tartean kokatuko dugu ? Zergatik??
- c. Maiztasuna: Zein maiztasunez emitituko da irratsaioa?: astean behin, egunero, lanegunero, astebururo...
- d. Irratia: nolako emisoran emitituko da? Tokian tokiko irrati batean, estatu mailan, publikoan, pribatuan, elkarte-irrati batean...
- e. Iraupena: ordu erdiko irratsaioa? Ordu-betekoa? Bi ordutakoa???
- f. Lan-taldea: zenbat esatari? Nork gidatuko du irratsaioa? Nor arduratuko da kontrol teknikoaz?. Zehaztu eginkizun hauen arduradunak (baleude):
 - Editorea:
 - Estariak
 - Kolaboratzaile finkoak
 - Bestelako kolaborazioak
 - Soinu-teknikaria
 - Musika-arduraduna
 - Efektuen arduraduna...

2. Irratsaioaren nondik norakoak:

- a. **Gai orokorra**: zertaz arituko da irratsaioa?: zinema, kultura, literatura, gaurkotasuna...
- b. **Gai tematikoa**: zein motako irratsaioa egingo da?: gaurkotasuneko magazina, albiste-magazina, bestelakorik
- c. **Gai poetikoa**: non kokatzen da irratsaioa? Hau da, nolako giroan egingo dugu? Eskenatoki berezirik du? Zein taxuera edo itxura izango du???

3. Irratsaioaren bideragarritasuna (justifikazioa):

Aurreko pausu guztiak egin eta gero, irratsaioa bideragarria dadin argudioak eskaini behar ditugu. Irratsaioa kokatuko den irratiko arduradunei “saldu” behar zaie.

- a. Nori zuzendutako irratsaioa den eta zergatik (publiko orokorrari, gazteei...)?

- b. Aukeraturiko ordutegia eta emisio-eguna; nori zuzentzen zaion arabera, ordutegia ere justifikatu beharko da (hau da, umeentzako saio bat balitz, ezin litzateke gauean jarri...).
- c. Aukeraturiko irratia. Zergatik kokatzen dugu irratsaioa aukeratutako irradi horretan? Zer aportatuko lioke? Eta irratia irratsaioari? Gabezia bati erantzutzen dio?
- d. Aukeraturiko gaia. Hau ere justifikatu beharra dago, ea zergatik gai hori aukeratu dugu eta ea azmatu dugun kontuan hartuta zein irratitan eta ordutegitan kokatzen zen, eta nori zuzentzen zaion...
- e. Bideragarritasun ekonomikoa:
 - Autofinantza daiteke irratsaioa? Nola?
 - Publizitatea izatekotan, nolakoa? Zein iragarleri interesa ahal zaio?
 - Ongi-izateak justifikatzen badu, zergatik? Zein da irratsaioa egiteko arrazoi soziala?